

XEDAPEN OROKORRAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

176

AGINDUA, 2025eko abenduaren 23koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez laugarren aldiz aldatzen baita 2020ko abuztuaren 4ko Agindua, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena. Agindu horren bidez, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde Autonomiadunak (HABE) eskaintzen dituen zerbitzuen eta betetzen dituen jardueren prezio publikoak finkatzen zen.

Uztailaren 30eko 397/2013 Dekretuaren eranskinaren 18. apartatuan zehazten dira Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde Autonomoaren (HABE) zein zerbitzu eta jarduera ordain daitezkeen prezio publikoen bidez (397/2013 Dekretuan zehazten dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zein zerbitzu eta jarduera ordain daitezkeen prezio publikoen bidez).

Agindu honen bidez, aldatu egin nahi da Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko abuztuaren 4ko Agindua, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde Autonomoak (HABE) ematen dituen zerbitzuen eta jardueren prezio publikoak finkatzen dituen. Agindu hura lehenago aldatu zen sailburu beraren 2021eko uztailaren 30eko Aginduaren bidez –2021eko abuztuaren 11ko EHAA (159. zk.)–, 2023ko irailaren 29ko Aginduaren bidez –2023ko urriaren 6ko EHAA (192. zk.)– eta 2024ko abuztuaren 13ko Aginduaren bidez –2024ko irailaren 6ko EHAA (174. zk.)–. Oraingoan, laugarrenez aldatzen da, eguneratu daitezkeen hautaketa eta hizkuntza-ebaluaketako zerbitzuengatik, euskararen irakaskuntzagatik eta mintegi, biltzar, jardunaldi eta ikastaroen matrikulazioengatik jaso beharreko prezioak. Gainera, artikulua berri bat sartu da, 3.ter artikulua, aldizkako argitalpenen ale solteen eta paperean argitaratutako materialen salmentaren prezioak arautzeko.

Martxoaren 20ko 1/2025 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bateginaren 33. artikulua ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, eta uztailaren 30eko 397/2013 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik (Dekretu horretan zehazten dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zein zerbitzu eta jardura ordain daitezkeen prezio publikoen bidez), Ogasun eta Finantza Sailak aldeko txostena eman duenez, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Bigarren artikulua («Euskara irakasteko zerbitzuak») aldatzea, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde Autonomiadunak (HABE) eskaintzen dituen zerbitzuen eta betetzen dituen jardueren prezio publikoak finkatzeko Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak 2020ko abuztuaren 4an emandako Aginduan.

2. artikulua («Euskara irakasteko zerbitzuak») aldatzen da, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde Autonomiadunak (HABE) eskaintzen dituen zerbitzuen eta betetzen dituen jardueren prezio publikoak finkatzeko Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak 2020ko abuztuaren 4an emandako Aginduan, eta honela idatzita geratzen da:

«2. artikulua.– Euskara irakasteko zerbitzuak.

Sektore publikoko langileak euskalduntzeko ikastaroak antolatu, koordinatu, kontratatu eta jarraipena egiteagatik honako hauek izango dira prezio publikoak:

a) Sektore publikoko langileez osatutako ikastaldeak:

1.– Aurrez aurreko ikastaroak, euskaltegi publikoetan: 135,03 euro/orduko/taldeko.

2.– Euskaltegi publikoek aurrez aurreko ikastereduan eskainitako ikastaroak, administrazioaren lokaletan: 123,78 euro /taldeko/orduko.

3.– Aurrez aurreko ikastaroak, euskaltegi pribatuetan: 113,75 euro/taldeko/orduko.

4.– Euskaltegi pribatuek aurrez aurreko ikastereduan eskainitako ikastaroak, administrazioaren lokaletan: 103,49 euro/taldeko/orduko.

b) Barnetegiak:

Euskaltegietan egiten diren egonaldiei eta ostatuei dagozkien zerbitzuak:

1.– Mantenu erdia: 16,11 euro/ eguneko/ikasleko.

2.– Mantenu osoa: 40,35 euro/eguneko/ikasleko.

c) Sektore publikoko langileen ikastaldeetan sartzen ez diren ikasle solteak:

1.– Euskaltegi publikoetako ikastaroak: 11,24 euro/ikasleko/orduko.

2.– Euskaltegi pribatuetako ikastaroak:

i) Lurralde historikoetako hiriburuetan: 11,34 euro/ikasleko/orduko.

ii) Gainerako herrietan: 10,79 euro/ikasleko/orduko.

3.– Ikasleen abiapuntuaren ebaluazioa: 33,89 euro/orduko edo ikasleko.

d) Sektore publikoko langileen ikastaroen koordinazio- eta jarraipen-zerbitzuak:

1.– Sektore publikoko ikastaldearen kasuan: 6,67 euro/taldeko/orduko.

2.– Ikasle solteak, beste talde batzuetan: 0,58 euro/ikasleko/orduko.

e) Eguneko/orduko bertaratze-datuak.

1.– Tarifa: 2,24 euro/ikasleko hilean.

f) Autoikaskuntza tutorizatuan eskaintzen diren ikastaroak.

1.– Autoikaskuntza tutorizatuko ikastaroak, lanpostuan bertan:

i) Autoikaskuntza-sistemaren lizentziak. Haren barruan izango dira autoikaskuntzarako softwarea instalatzea, eguneratzea eta zerbitzu teknikoa (beharrezkoa izanez gero), erabilera-jarraibideak, mailaketa-azterketak, pedagogia-jarraipena eta tutoretza-saioak. Lizentziaren prezioa kontratatutako lizentzia-kopuruaren araberakoa izango da:

Lizentzia-kopurua	9 hilabeteko ikastaroa (190 ordu)	3 hilabeteko ikastaroa (75 ordu)
1-40	1.861,17 euro/lizentziako	818,13 euro/lizentziako
41-80	1.793,81 euro/lizentziako	812,70 euro/lizentziako
81-120	1.738,40 euro/lizentziako	807,27 euro/lizentziako
>121	1.681,90 euro/lizentziako	795,32 euro/lizentziako

2.– Mintza-saioak:

i) Lantokian osatutako taldeetan:

a) 9 hilabeteko ikastaroa (asteen ordubete): 103,49 euro/orduko/taldeko.

b) 3 hilabeteko ikastaroa (asteen ordubete): 103,49 euro/orduko/taldeko.

ii) Telefono edo IKTen bidez lantokia EAetik kanpo dagoenean:

a) 9 hilabeteko ikastaroa (banaka, 20 minutu astean): 1.008,80 euro/ikasleko.

b) 3 hilabeteko ikastaroa (banaka, 20 minutu astean): 335,88 euro/ikasleko.

iii) Zerbitzu osagarriak (ikastaro guztietan):

a) Lizentzia finkotik mugikorrerako edo interneterako aldaketa (instalazio packa barne): 177,24 euro/ikasleko.

b) Ikasle-aldaketa (lizentzia beste ikasle bati pasatzea): 110,90 euro/ikasleko.

c) Programaren erabilera, asistentzia eta aprobetxamenduaren hileroko txostena: 5,69 euro/txosteneko/ikasleko.

d) Programaren erabileraren hileroko txostena: 2,00 euro/txosteneko/ikasleko.

iv) Tutoreek euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentro homologatua kokatuta dagoen herritik kanpo dagoen lantoki batera mugitu beharra badute, joan-etorrietako gastuen ordainketak Zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoetako enplegatu publikoentzat aurreikusten direnak izango dira.

g) Autoikaskuntza tutorizatuaren bidezko ikastaroak euskaltegietan edo autoikaskuntzarako zentro homologatuetan:

Autoikaskuntza tutorizatuaren bidezko ikastaroko matrikula:

9 hilabeteko ikastaroa (190 ordu)	3 hilabeteko ikastaroa (75 ordu)
2.921 euro	1.156,55 euro

h) Lotura-eskubideak:

Euskaltegien Erregistroan inskribatu gabeko zentroetan HABEren autoikaskuntzarako ikas-plataforma erabiltzeko urteko baimena.

i) 1-20 erabiltzaile: 1.802 euro/urteko/zentroko.

ii) 21-100 erabiltzaile: aurreko prezioari urteko 89,6 euro gehituko zaio 20tik gorako erabiltzaile bakoitzeko.

iii) 100 erabiltzaile baino gehiago: 100 erabiltzailetik gorakoek ez dute beste gehigarririk izango; horrela, ezingo da gainditu 8.960 euroko kopurua.

Bigarren artikulua.— Hirugarren artikulua («Hizkuntza-gaitasuna ebaluatzeko eta egiaztatzeko zerbitzuak») aldatzea, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde Autonomiadunak (HABEk) eskaintzen dituen zerbitzuen eta betetzen dituen jardueren prezio publikoak finkatzeko Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak 2020ko abuztuaren 4an emandako Aginduan.

3. artikulua («Hizkuntza-gaitasuna ebaluatzeko eta egiaztatze zerbitzuak») aldatzen da, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde Autonomiadunak (HABEk) eskaintzen dituen zerbitzuen eta betetzen dituen jardueren prezio publikoak finkatzeko Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak 2020ko abuztuaren 4an emandako Aginduan, eta honela idatzita geratzen da:

«3. artikulua.– Hizkuntza-gaitasuna ebaluatzeko eta egiaztatze zerbitzuak.

1.– Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren mailaren bat egiaztatze azterketa-eskubideak:

a) Euskaltegi-tako eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatu-tako ikasleei zuzendutako proba-deialdietan eta Euskal Etxe-tako ikasleentzako deialdi berezietan: 45,50 euro maila/deialdi/ikasleko.

b) Deialdi irekiak:

1.– Deialdi irekietako egiaztatze-probetan eta a) atalean aurreikusten ez diren beste deialdi berezietan: 90 euro maila/deialdi/ikasleko.

2. HEOCaren komunikagaitasun-mailetako trebetasunen bat egiaztatze probetan (bat ekoizlea izanik beti): 45,50 euro maila/deialdi/ikasleko.

c) Salbuespenak eta hobariak.

1.– Ordaintzeko salbuetsita egongo dira espetxeetan dauden pertsonak, kategoria bereziko familia ugarietako kideak, terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema arautzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 25. artikuluan aurreikusitako egoeretan dauden pertsonak eta azken bost urteotan genero-indarkeria jasan duten pertsonak, genero-indarkeriaren egoera egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztuta.

2.– Kategoria orokorreko familia ugarietako kideek % 50eko hobaria izango dute.

2.– HABEren teknikariek epaimahaietan eta balorazio-batzordetan parte hartzeko, frogak prestatzeko, aplikatzeko eta zuzentzeko zerbitzuak: 65,18 euro/lanorduko (BEZa kanpo).

3.– Kopuru horri dagokion BEZa, haren araudi erregulatzailaren arabera.

4.– Horrez gain, teknikarien joan-etorrietako gastuen ordainketak zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoetako enplegatu publikoentzat aurreikusten direnak aplikatuko dira.»

Hirugarren artikulua.– 3.bis artikulua («Mintegi, kongresu, jardunaldi eta ikastaroetako matrikulak») aldatzea, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde Autonomiadunak (HABEk) eskaintzen dituen zerbitzuen eta betetzen dituen jardueren prezio publikoak finkatzeko Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak 2020ko abuztuaren 4an emandako Aginduan.

3.bis artikulua artikulua («Mintegi, kongresu, jardunaldi eta ikastaroetako matrikulak») aldatzen da, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde Autonomiadunak (HABEk) eskaintzen dituen zerbitzuen eta betetzen dituen jardueren prezio publikoak finkatzeko Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak 2020ko abuztuaren 4an emandako Aginduan, eta honela idatzita geratzen da:

«3.bis artikulua – Mintegi, kongresu, jardunaldi eta ikastaroetako matrikulak.

1.– HABEk euskara-irakasleentzat antolatzen dituen prestakuntza-jarduerak –aurrez aurrekoak eta modulu telematiko bidezkoak– egiteko matrikularen zenbatekoa iraupenaren (orduen) arabera ezarriko da.

Iraupena	Prezioa
5 ordu bitarteko ikastaroak	19,14 euro/matrikula
6-10 ordu bitarteko ikastaroak	38,17 euro/matrikula
11-20 ordu bitarteko ikastaroak	57,31 euro/matrikula
21-30 ordu bitarteko ikastaroak	76,34 euro/matrikula
31-40 ordu bitarteko ikastaroak	95,42 euro/matrikula
41-50 ordu bitarteko ikastaroak	114,51 euro/matrikula
51-70 ordu bitarteko ikastaroak	152,79 euro/matrikula
71-100 ordu bitarteko ikastaroak	229,13 euro/matrikula
101-150 ordu bitarteko ikastaroak	305,47 euro/matrikula
151-250 ordu bitarteko ikastaroak	458,26 euro/matrikula
251 ordu baino gehiagoko ikastaroak	610,94 euro/matrikula

2.– Beste erakunde batzuek antolatutako prestakuntza-jardueratan eta/edo ikastaroetan HABE-ren zerbitzuak jaso nahi badira, 87,21 euro/orduko ordainduko da zerbitzu horiengatik.»

Laugarren artikulua.– 3.ter artikulua («Argitalpen eta material didaktikoen salmenta») gehitzea, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde Autonomiadunak (HABEk) eskaintzen dituen zerbitzuen eta betetzen dituen jardueren prezio publikoak finkatzeko Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak 2020ko abuztuaren 4an emandako Aginduan.

3.ter artikulua («Argitalpen eta material didaktikoen salmenta») gehitu da, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde Autonomiadunak (HABEk) eskaintzen dituen zerbitzuen eta betetzen dituen jardueren prezio publikoak finkatzeko Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak 2020ko abuztuaren 4an emandako Aginduan, eta honela idatzita geratzen da:

«3.ter artikulua.– Argitalpen eta material didaktikoen salmenta.

1.– HABE erakunde autonomiadunaren aldizkako argitalpenen ale solteen salneurriak, BEZa kanpo, honako hauek dira:

Itzulpen saileko aleak	5,42 euro aleko
Aisa saileko aleak	5,69 euro aleko

2.– HABE erakunde autonomiadunak paperean argitaratu dituen materialen salneurriak, BEZa kanpo, honako hauek dira:

Euskara-Ikaslearen Oinarrizko hiztegia	3,11 euro
Ostalaritza Ikasmateriala	10,36 euro
Europako Erreferentzia markoa	5,17 euro
Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum-HEOC	9,32 euro
Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum	9,32 euro
Curriculum-Langaiak: Testu-ereduak	10,36 euro
Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum-HEOC	18,63 euro
Hizkuntzen Europako Erreferentzia marko bateratua	15,53 euro
Alte Jokabide Egokien printzipioak	1,04 euro
Barrenet.15	0,92 euro
Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako liburu osagarria	7,77 euro
Bai horixe! Euskara ikasteko Lehenengo urratsa	2,81 euro
Zuzenbidean	7,77 euro
Antzoki Iluna Bilduma	12,44 euro

3.– Aurreko apartatueta jasotako prezioei dagokion BEZa gehituko zaie, haren araudi erregulatzailearen arabera.»

Azken xedapen bakarra.– Indarrean jartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 23a.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
IBONE BENGOTXEA OTAOLEA.